

Stock Azoka eta Udazkeneko Festa herrian

Irailaren 3tik 5era eta 7tik 19ra egingo dira Stock Azoka eta Udazkeneko Festa, hurrenez hurren. Helburu nagusiak herriko merkataritza sustatzea eta babestea dira / 4

**Ikasturte hasiera:
udalak herriko
zenbait espazio
eskaini dizkio
Hezkuntza Sailari / 3**

**Donostia Arraun
Lagunak traineruak
Kontxako Bandera
jokatuko du datozen
bi asteburuetan / 10**

**Naroa Furundarena
eta Mainer Rekondo
Euskadiko txapeldun
luzera jautsian
eta pisu-jaurtiketan / 4**

**Aurten etendako
ikastaro eta abonuen
zati proportzionalak
bueltatzen hasi da
Udal Kirol Zerbitzua / 12**



Kasuek gora egin dute

COVID-19agatik 113 kutsatze erregistratu ditu Osasun Sailak herrian, abuztuan / 2

TXINTXARRI



**AEKn, IRAKASLE BATEK
BIK BESTE BALIO DU.**

Irakasten daki eta
ikas dezazun nahi du.

aek

euskara praktikoa


eman izena!

Muntteri AEK euskaltegia

EUSKARA-IKASTAROAK

MATRIKULAZIOA ZABALIK

- Maila guztiak: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2
- Aurrez aurreko eskolak.
- Autoikaskuntza.
- "On-line" aukera.



Hilabetez hilabete datuak bildu eta grafika batean islatu ditugu: kutsatzeen igoera nabarmena izan da abuztuan. TXINTXARRI

Goranzko joera azken hilabetean

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren datuen arabera, 113 kasu erregistratu dira Lasarte-Orian abuztuan. Martxotik uztaile arte, berriz, 56. Agustín Valdivia alkateak prentsaurrekoa eskaini du asteon udalerraren egoera baloratzeko

Txintxarri

Abuztuan nabarmen igo dira kasuak Euskal Herri osoan, eta baita Lasarte-Orian ere: urteko zortzigarren hilabeteko 31 egunetan, 113 kasu positibo, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren datuen arabera. Martxo erdialdetik uztaile amaierara arte atzemandako kasuen bikoitza baino zertxobait gehiago erregistratu dira gurean bukatu berri den hilabetean.

Abuztuko lehenengo egunetako joera ikusita, ez zirudien geroko bilakaera horrelakoa izango zenik. Hilaren 6ra arte apenas detektatu zen kasu berririk gurean, Ama Brigitarren komentuko hamahiru mojetatik hamabik positibo eman zuten arte. Felix Garitano kapilaua ere kutsatu zen. Hurrengo egunetan PCR probak egitera

deitu zituzten abuztu hasieran mezetara joan ziren fededunak, eta Osakidetza jakinarazi zuen negatibo eman zutela guztiek. Abuztuaren 6tik 8ra hamasei kasuren berri eman zuen erakunde horrek. Gerora ere, gorako joerari eutsi diote positibo kasuen gurean.

Abuztuko bilakaera horren berri emateko, eta batez ere abuztuko positibo goranzkoen inguruko datuak emateko prentsaurrekoa eman du, asteon, Agustín Valdivia alkateak. Jakinarazi du Osakidetza

**AGUSTIN VALDIVIA
ALKATEAK OSASUN-
NEURRIAK BETETZEN
JARRITZECO ESKATU
DIE HERRITARREI**

Lehen Mailako Arreta zerbitzuarekin "etengabeko harremanean" dagoela, eta haien bitartez jasotzen dituela herriko datu eguneratuak. Horrela jakin zuten abuztuaren 22ko hamabi positibo berri. Dei horretan jakinarazi zioten baita ere kutsatutako dozena herritar horiek guztiak Donostiako bi diskoteketan gertatutako kutsatzeekin zuzeneko lotura zutela: "Lasaitasun mezua helarazi zidaten, guztiak kontrolatuta eta euren etxeetan konfinatuta zeudela".

**ABUZTUAREN 25ETIK
MERCERO ARETOAN
EGITEN ARI DIRA PCR
PROBAK, OKENDO
PLAZA ONDOAN**

Lehen gorakada nabarmenaren horren ostean, positibo gutxi batzuk izan ziren ondorengo egunetan, baina, abuztuaren 25etik aurrera, berriro ere kasu goranzko joera hartu zuten: "Azken positibo hauek, abuztuaren 22koekin gertuko harremana zutelako gertatu zirela azaldu dit Osakidetza; espero zutela positibo gehiago agertzea".

Oporraldi garaiarekin ere lotu ditu alkateak, gerora erregistratutako positiboak; azaldu du herritik kanpo ibili diren zenbait lasarte-oriatar kutsatuta bueltatu direla. Adibide zehatz bat ere jarri du: "Hiru bizilagun dauzkagu Tuterako (Nafarroa) Uvesa lantegian izandako agerraldiak eragin dienak".

PCR probak Mercero plazan

Herritar baten kexa dei bat jaso zuen, abuztuan, Valdiviak. Dei horretan, ambulatortara PCR probak egitera joaten ziren erabiltzaileak eta gainerako erabiltzaileak errenkada berean pilotzen zirela jakinarazi zion herritarrek. Horrela, osasun zentroko langileekin hitz egin eta irtenbide bat bilatzeko asmoz, PCR probak egiteko lekua aldatzea erabaki dute. Horrela, abuztuaren 25etik aurrerako PCR probak Okendo plazako udaletxe azpiko arkupeetan egiten ari dira. Horrekin batera, aurreratuta, etorkizunean PCR proba masiboak egin beharko balira, Loidibarrengo pilotalekuan egingo dituztela.

Pandemia iritsi zenetik, arazoei konponbideak aurkitzeko ahaleginetan ari direla ere gogorarazi du. Orain arte diseinatutako laguntzak gogorarazi ditu, besteak beste, familiei eta establezimenduei zuzendutakoak. Guztira 214 familia atenditu dituzte eta horietatik 91ri lagundu diete. Guztira, 111.000 euro bideratu dituzte familiei laguntzeko diru-laguntza lerrora. Tabernei eta komertzioei dagokienez, berriz, 237 establezimendu lagundu dituzte, guztira, laguntza horietara, 229.600 euro bideratuz.

Abuztura arte "zorte ona"

Amaitu berri den hilabetean positibo kasu nabarmen gora egin arren, abuztura arteko hilabeteetako bilakaera ere ekarri du gogora alkateak: "Pandemia hasi zenetik, zorte ona izan dugu; biztanleria kontuan hartuta, kasu

gutxienetarikoa izan duen herrietako bat izan da gurea".

Irailari, berriz, albiste hobea batekin ekin genion: abuztuaren 31n ez da positibo berririk erregistratu Lasarte-Orian. Hilaren 23tik ez zen hori gertatzen. Pasa den asteko ostegunetan detektatu ziren gehien, hemeretzi. Bezperan, hamabi, eta hamahiru 25ean. Datu gehiago: abuztuaren 22tik 27ra 61 kasu erregistratu zituzten gurean. Martxo erdialdetik uztaile amaierara, 56.

Baina iraileko lehen egunak ere positibo kopuru asko batu ditu; guztira hamabi. Bigarren egunean, bost gutxiago izan dira. Hortaz, bilakaera ikusita, alkateak, prentsaurrekoan gogorarazitako babes-neurri eustea ezinbestekoa da. Orain arteko martxari eusteko eskaera egin die herritarrei Valdiviak. Horrela, maskara erabiltzen jarraitzeko eskaerarekin batera, eskuen garbitasunean arreta jartzeko eta segurtasun distantziak mantentzeko deia luzatu die lasarte-oriatarrei.

Beterri-Buruntzako datuak

Eskualdeko zenbait udalerritan erregistratu zituzten kasuak irailaren 2an -irailaren 3ko txostena izan da TXINTXARRI-k kontsultatu ahal izan duen azkena edizioa itxi aurretik-. Gehienak, Hernanin, 26. Andoainen lau kutsatze atzeman dituzte eta beste bi Astigarragan.

EAEko datuak hauek izan dira: 605 positibo Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban. 360, 165 eta 53, hurrenez hurren. 56 pertsona ospitaleratu dituzte 24 orduetan, eta guztira 259 daude ingresatuta, horietatik 47 ZIU unitateetan.

Bilakaeraren hainbat datu

• **Lasarte-Oriako lehen positiboa martxoaren 18an erregistratu zuten.**

• **Maiatzaren 27tik uztailearen 9ra ez zen kasu berririk erregistratu.**

• **Abuztura arte 56 kasu atzeman ziren; hilabete horretan, 113.**



Besteak beste, udalak Gaztelekua erabiltzea eskaini dio Hezkuntza Sailari. TXINTXARRI

Ekipamendu eskaintza ikasturtea hasteko

Lasarte-Oriako Udalak iragarri du Hezkuntza Sailak egindako eskaerari baietz esan diola, eta espazioak eskaini dituela ikasleek kurtsoa presentzialki hasi ahal izan dezaten: Euskaltegi zaharra, kultur etxea, Gaztelekua eta Oztaran eta Kaxkarroko ikastetxeak

Txintxarri

Aurtengo ikasturtea era presentzian hasten laguntzeko xedez, Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du zenbait espazio utzi dizkiola Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari, Eudel Euskadiko Udalen Elkarteak EAEko udalei eskatutakoari erantzunez. Hauek dira udalak eskaini dituen espazioak: Oztaran eta Kaxkarroko ikastetxeak –honezkerok Hezkuntza sailari utzita daudela zehaztu du, eta "erabat operatibo" daudela, Euskaltegi zaharra, Manuel Lekuona kultur etxea eta Gaztelekua. Udalak adierazi du "beharrezkoa" dela zenbait ikasle espazio berri horietan birkokatzea, osasun protokoloan ezarritako baldintzak tarteko, egoerak "normaltasunera itzultzea" ahalbidetzen duen arte.

Ekipamendu horiez gain, "kirol jarduetarako zein jolaserako" beste espazio batzuk eskaini dizkio udalak Hezkuntza Sailari: Michelingo kirol-gunea,

Loidibarrengo frontoia, Oriako pilotalekua, Zabaletako frontoia eta Mirentxuko trinketea.

"Oso garrantzitsua da ikasleek presentzialki hastea aurtengo ikasturtea, baldintza berdinetan, hezkuntza baita ongizate estatuko oinarritzko zutabeetako bat", nabarmendu du Lasarte-Oriako Udalak ohar bidez. Instituzio guztiek "koordinatuta" lan egin behar dutela azpimarratu du, pandemiak sortutako egoera konpontzeko "bide eraginkor bat" topatu arte.

Materiala erosteko laguntzak

Urriaren 1era arte, ostegunez, eskola materiala erosteko diru laguntzak eska ditzakete herritarrek, baldin eta urtean

ESKOLA MATERIALA

EROSTEKO

DIRU LAGUNTZAK

URRIAREN 1ERA ARTE

ESKA DAITEZKE

40.000 eurotik beherako diru-sarrerak baldin badauzkate. Ikasle eta familia-unitate bakoitzeko honako kopuruak jaso ditzakete: 110 euro, diru-sarrerak 25.000 eurotik beherakoak badira; 90 euro sarrerak 25.001 eta 33.000 euro artekoak badira; eta 50 euro 33.001 eta 40.000 euro arteko sarrerak dituztenek.

Derrigorrezko Lehen eta Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketako erdi-mailako zikloetan ari diren ikasleek jaso dezakete laguntza. Familiek herrian erroldatuta egon beharko dute, nahiz eta ikasleek beste udalerrri bateko eskolatan jardun. Materiala Lasarte-Oriako dendetan erosi behar da, irailaren 30era arte. Laguntza jasotzeko, eskatzaileek faktura originala atxiki beharko diote eskaerari. Tramitazioa Internet bidez eginez gero, eskaneatu egin beharko dira tiketak, eta e-mailez bidali gero. Esan bezala, urriaren 1a izango da azken eguna, osteguna.



Udal ordezkariak eta teknikariak, ikastaroen aurkezpenean. TXINTXARRI

Emakumeen Zentro Zibikoko ikastaroak, martxan

Irailaren 7tik 9ra ikastaroetan izena emateko epea irekiko du. Osasun eta segurtasun protokoloa ezarri dute

Txintxarri

Emakumeen Zentro Zibikoak irailaren 21ean emango dio hasiera ikasturteari, astelehenez. Zentroko teknikariek landutako osasun eta segurtasun protokoloa izango dute jarraibide eta udal ordezkariak zentroak eta erabiltzaileek jarraitu beharreko neurriak azaldu dituzte ikasturte berriaren izena emateari buruzko agerraldian.

Lasarte-Oriako alkate Agustin Valdiviaki garrantzia eman dio gune hori ikasturte berrian martxan jartzeari: "Gizarteratzea eta emakumeen ahalduzkoa ahalbidetzen duen gunea da".

Ikasturte hau berezia izango da, ordea. Zentroko jarduna eta edukierak egoerara egokitu behar izan baitituzte. Ikastaroek 6 eta 9 pertsona arteko edukiera izan ahalgo dute gelaren arabera.

Saio bakoitza amaitzean gela desinfektatuko eta aireztatuko da. Komunak itxita egongo dira eta teknikariek eskatuta bakarrik erabili ahalgo dira eta ezingo da gune komunetan egon.

Erabiltzaileek ere neurri batzuk jarraitu beharko dituzte: hala nola, maskararen erabilera derrigorrezkoa izango da eta erabiltzaileek zentrotik sartu eta ateratzerakoan eskuak desinfektatu beharko dituzte.

Zentroko materialik ezingo da ukitu, salbuespen izango dira jantzi-konponketa eta patrioiak ikastaroko materialak. Hori dela eta, erabiltzaileek materiala eraman beharko dutela eta ezin dutela partekatu azpimarratu du Maite Iglesias zentroko

teknikariak. "Jantzi-konponketa eta patrioiak ikastaroko materiala, hau da, plantxa eta joste-makinak erabilera bakoitzaren ostean desinfektatuko dira", zehaztu du.

Erabiltzailearen batek COVID-19aren sintomak edo sintomak dituen pertsonaren batekin harremana izanez gero, zentrorara deitu beharko du dagokion protokoloa martxan jartzeko eta ezingo da ikastarora joan dagokion berrogeialdia igaro arte.

Izena ematea

Emakumeen Zentroko eskaintzan ordea, ez da berrikuntzarik izango. Iglesiasek azaldu moduan, "iazko ikasturtean amaitu ezin izan genituen ikastaroak antolatuta ditugu. Nahiz eta ikasturtea talde batzuekin Zoom plataforman bidez amaitu, erabiltzaile guztiei ikastaroarekin jarraitzeko aukera eman nahi izan diegu".

Ikastaroen izena emate epea irailaren 7an, astelehenarekin ireki eta 9an, asteazkenarekin itxiko dute. Goizeko 09:30etik 13:00etara eta 15:30etik 19:30era egin ahalgo da inskripzioa zentroan.

Jardueraren batean izena emate kopurua plazak baino handiagoa egingo da, irailaren 11n, 12:00etan. "Urtero egiten da zozketa hori, baina aurten edukiera murrizketak direla eta, ohikoa baino jende gehiago kanpoan geratuko da", ohartarazi du zentroko teknikariak.



Ostegun eguerdian aurkeztu dute datorren astlehenean hasiko den Udazkeneko Festa, irailak 7. TXINTXARRI

Egitasmoz egitasmo, komertzioa babestuz

Herriko komertzioa hauspotzeko lan nekazina egiten du Aterpea Merkatarien Elkarteak. Ostiral eta larunbatean stock azoka izango da, eta datorren astean, Udazken Festa abiatuko dute; 3.500 euro banatuko dituzte, bezeroen artean

Txintxarri

Lasarte-Oriako hamahiru establezimenduk parte hartuko dute aurtengo stock azokan, irailaren 3tik 5era. Aterpea elkarteak eta udalak antolatu dute, elkarlanean. Biltegiko produktuak salgai jarriko dituzte, denboraldi berrirako materiala ekarri aurretik. COVID-19a tarteko, aldaketak egin dituzte: denda kanpoaldeetan ez dute gune berezirik jarriko. Pandemiak sortutako egoera tarteko, "saltzeko produktu asko" dauzkatela nabarmendu dute merkatariek.

Denboraldi berriaren atarian, komertzio eta dendek orain arteko materiala salduko dute astean, irailaren 3tik 5era, ostegunetik larunbatera. Stock azoka antolatu dute Aterpea elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak. Hamahiru establezimenduk parte hartuko dute 2020ko edizioan. "Osasun krisia dela eta, aurten ez dugu karparik jarriko denden kanpoaldean: produktuak barruan erosi ahalko dituzte herritarrek", zehaztu du

Aterpeako lehendakari Miguel Angel Prietok. "COVID-19aren pandemiak eragin du aurten biltegiak ohi baino beteago edukitzea; gauza asko ditugu saltzeko".

Udalak eta Aterpeak lasarte-orientarrak animatzen dituzte azokan parte hartzera, "distantzia soziala eta gainontzeko osasun neurriak mantenduz".

Udazkeneko Festa

Astleheneetik aurrera bigarren egitasmo bat ere abiatuko merkatarien elkarteak: Udazkeneko Festa. Ostegun eguerdian aurkeztu dute, Aterpeako merkatariek, prentsurrean.

Hilaren 7tik 19ra iraungo du egitasmoak, eta bi zatitan banatu dute. Alde batetik, 3.500 euro banatuko dituzte, epe horretan kanpainen parte hartuko duten establezimenduetan erosketak egiten dituzten bezeroen artean. Izen emateko papertxoak banatuko dizkiete, horiek bete eta erosketak-bonuen zozketan parte hartuko dute. Irailaren 23an egingo du Aterpeak zozketa,

eta, guztira, hamabi saritan banatuko dituzte 3.500 euroak: 500 euroko bi erosketa-bonu eta 250 euroko hamar. Erosketa bonu horiek erabiltzeko baldintza bakarra Aterpeako establezimenduetan gastatzea izango da.

Kanpainaren bigarren zatian, umeak izango dira protagonista nagusiak. Udaberri Festan egin asmo zuten jarduera hau, baina koronabirusak eragindako egoera medio, udazkenekora atzeratu dute.

Sasoeta-Zumaburu eta Landaberri-Garaikoetxeako 6 eta 12 urte arteko 600 bat umek, udan egin dutena marraztu beharko dute, eta, ondoren, lan horiek Aterpeako establezimenduetako erakusleihoetan jarriko dituzte ikusgai. Horrela, haur bakoitzak bere marrazkia bilatu beharko du, eta topatzen duen establezimendua, saritxo bat emango dio parte hartzea eskertzeko.

Udazken Festaren helburuak herriko komertzioak sustatzea eta etxeko txikienean herriko komertzioa ezagutzeko dira.

Aldez aurretik hitzordua eskatu behar da KZgunean

Ikasturte berriari ekin dio Lasarte-Oriako KZguneak, neurriak hartuta eta aldaketa batzuk eginda

Txintxarri

Lasarte-Oriako KZgunera joan nahi duten herritarrek hitzordua eskatu behar dute aldez aurretik, eta zehaztu zein zerbitzu behar duten. Horretarako, 943 02 36 60 telefono zenbakira hots egin behar dutela zehaztu dute zentroko arduradunek. Arratsalde irekitzen dituzte ateak, baina adierazi dute posible dela egun osoan zehar. Honako hau da ordutegia: 09:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 20:00etara.

Hartu beharreko neurriei eta jarraitu beharreko protokoloari buruzko informazioa web orrialde honetan bildu du KZguneak: <https://www.kzgunea.eu/eu/kzguneako-zentroen-berriro-irekitzea>. Maskara erabiltzea derrigorrezkoa da, eta, esan bezala, aurrez hitzordua hartzea eta erabili nahi den zerbitzua zehaztea. Sartzerakoan eskuak

KZgunean pozik gaudu zu berriz ikustez
En KZgunea estamos encantados de volver a verte

Nola gozatu KZguneako zerbitzuez?
¿Cómo disfrutar de los servicios KZgunea?

Horretarako... Eskatu zure HITZORDUA **Para ello... Pide tu CITA PREVIA**

943 023 660
A/L - Or/V
9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Izapideak sinatzeko, zure boligrafoa ekarri beharko duzu.
Para la firma en tramitaciones, deberás traer tu propio boligrafo

Zein zerbitzu erabilgarri ditugu?
- Informazio orokorra
- Irizpideak: BakiQ, Metaposta
- Aurrez aurreko tutorizak
- Nabigazioa: gehienez 20 minutu

¿Qué servicios tenemos disponibles?
- Información general
- Tramitaciones: BakiQ, Metaposta
- Tutorías presenciales
- Navegación: máximo 20 minutos

www.kzgunea.eu

Informazio kartela. KZGUNEAK

garbitu eta desinfektatu beharko dituzte erabiltzaileek, eta distantzia soziala errespetatu. KZgunearen arduradunek gomendatzen dute norberak etxetik eramatea materiala: apunteak hartzeko boligrafoa, esate baterako.

Presoen aldeko aldarriak abuztuko azken ostiralean

Dozenaka herritar Elitzatze plazatik Okendora joan dira, Lasarte-Oriako Sarek antolatutako ekintzan

Txintxarri

Euskal presoak etxeratzea galdegin dute dozenaka herritarrek abuztuko azken ostiralean. Horien artean, Ibon Fernandez Iradi, Jabi Gallaga eta Aitzol Iriondo herritarrek. Lasarte-Oriako Sarek antolatutako ekintzarekin bat eginez, Elizatze plazan elkartu eta Okendora arteko bidea egin zuten, erdiguneko beste zenbait kale zeharkatuz.

Bestalde, herriko zenbait gaztek bat egin zuten Sareren *Gazteok Bidean!* ekimenarekin. Hernaniko Gudarien plazatik atera zen zutabearekin bat egin zuten abuztuko azken larunbatean, hilak 29, eta eguerdian Astigarragako Foru enparantzan egin zen ekitaldian parte hartu. *Izan Bidea* dinamikaren baitan antolatu zuten ekitaldi hori gazteek. Era berean, gazteek salatu zuten euskal preso eta



Herritarrek, ekitaldian. L-0 SARE

iheslariek bizi duten egunerokoa. "Egoera prekarioa bizi dute. Ehunka dira oraindik Espainia eta Frantziako espetxeetan sakabanatuta daudenak; giza eskubideen urraketa horri gehitu behar zaio COVID-19ak eragin duen guztia".

Udazkeneko

Festa 3.500€[★] saritan

Kontsumitu ezazu Lasarte-Orian Irailaren 7tik 19ra eta parte har ezazu erosketa-bonoen zozketan

Kontsulta ezazu establezimendu parte-hartzaileen zerrenda

ALBA MODA	YOGA LASARTE	ORMAZABAL LORADENDA
ARKUPE TABERNA	ALCAR LEIHOAK	NOELIA CALERO OSTEOPATIA
ABREU BAZARRA	RAKEL MASAJEAK	JOSEMA BURDINDEGI-SARRAILAGINTZA
BIDEO LAGUNAK	ARITZA MERTZERIA	SORAYA GALLEGO MIKROPIGMENTAZIOA
NOGUES MODA	OIHANA ESTETIKA	VIÑA DEL MAR KAFETEGIA
MAYA LENTZERIA	EKA YOGA STUDIO	ANA GIZONEZKOEN ILEAPAINDEGIA
OLMI MERTZERIA	LAVIE GASTROBAR	MILLA FINKEN ADMINISTRAZIOA
NOAOA BIDAIK	DULCE TENTACIÓN	ZURLAN ATE ETA LEIHOAK
LIZARRI OPTIKA	AVENIDA TABERNA	TXEMA VALLES-PUBLIBROCK
YOLANDA TABERNA	ITURBE OINETAKOAK	BARDAJI ADMINISTRAZIOAK
LASARTE TABERNA	ABEND GARAGARDOTEGIA	MARIAN OLAIZOLA ILEAPAINDEGIA
MAY ILEAPAINDEGIA	OLA MARKOGINTZA	AMAIA OLONDRIS PODOLOGO ZENTROA
SAITO GIMNASIOA	ORBELA EKODENDA	SILVIA LUIS ARBIZU FINKEN ADM.
NATURHOUSE	HAUNE BARNE-DISEINUAK	STRATFORD INGELES AKADEMIA
ORUE BOTIKA	SUKOA BURDINDEGIA	BIZKER INPRIMAKETA DIGITALA
VITERI MUGIKORRAK	CARREFOUR EXPRESS	KIMA MASAJE ZENTROA
HALCÓN BIDAIK	URRUZOLA MERTZERIA	KAIZEN ALTZARIAK ETA DEKORAZIOA
BEA ILEAPAINDEGIA	MAIANE LURRINDEGIA	ALDAZ HORTZ-KLINIKA
RK HIGIEZINAK	BUENETXEA KAFET.-TABERNA	ARREGUI ELEKTRIZITATEA
MAUXA MERTZERIA	IZAGUERRI+C LOTERIAK	HITZ-KIRIBIL LOGOPEDIA
IRIGOYEN OPTIKA	BERASATEGI KAFEAK	NORTH TEAM NUTRIZIOA
MABEL MODA	AITONAK OKINDEGIA	ARAETA SAGARDOTEGIA
LEDER OINETAKOAK	MARBELL ILEAPAINDEGIA	MULTIOPTICAS LASARTE
BETELU GESTORIA	ARTSIER ARGAZKILARIA	SANTANA INFORMATIKA
HIRU ALDETA TABERNA	DEL ORIA BEIRATEGIA	ISU LEIHOAK
ORIA-TXIKI TABERNA	DECO 75 ETXEKO EHUNKIAK	IMAGINE JANTZI DENDA
EGUZKI TABERNA	ADATS ORRAZTEGIA	INES FLORES ARTISAUTZA
MANI'S ILEAPAINDEGIA	BUS KAFETEGI-TABERNA	CLOVER SUKALDE, BAINU ERABERRITZEAK
ZUBIETA MOTOR	DOAL SALUD	



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

LASARTE-ORIAN BIZI,
LASARTE-ORIAN EROSI



Ttakun

Kultur Elkartea

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

54€ urtean

Euskara eta kultura bidelagun!

zuk

54€
urtean

ordaindu

guk

Euskara eta
kultura
sustatuko
dugu

Errenta
aitorpenean

%20ko

kenkaria
izango duzu

Datuak bete eta utzi Ttakuneko bulegoko postontzian (Geltoki kalea, 4)

On-line egiteko: www.txintxarri.eus/bazkidetu

Izen-abizenak: _____

NAN: _____ Jaiotze data: _____

Helbidea: _____ Herria: _____

Telefonoak: _____

e-maila: _____

Kontu korrontea (IBAN): _____

Data eta Sinadura



Ttakun Kultur Elkartek urtean zehar antolatzen dituen ekitaldien eta zozketen berri jaso nahi dut emailaz

Bidali postaz edo utzi bulegoan:

Geltoki kalea 4, behea 20160 LASARTE-ORIA

On-line egiteko:

www.txintxarri.eus/bazkidetu



Ttakun kultur elkartearen izenean emandako datuak bazkideen kudeaketarako erabiliko direla adierazten dizugu: kudeaketa administratiboa, bazkideen onuren aplikazioa, zozketen partehartzea eta harremanetarako informazioa. Emandako datuak bazkideez irauten duen bitartean edota betebeharrak legalak irauten duen bitartean gordeko dira. Datu hauek ez dira hirugarren pertsonen eskainitako betebeharrak legalak dagoen kasuetan ezlik. Honetaz gain, edozein momentutan egikaritu daiteke sarbide, zuzenketa, ezeztatze, oposizio, mugatze eta eramangarritasun eskubidea. TTAKUN KULTUR ELKARTERA idatzi bat zuzenduz NAN agiria aurkeztuz, edo posta elektronikoki bat bidaliz datubabesa@ttakun.eus helbidera.

Informazioa eta bazkideztzak: ttakun@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943 37 14 48

Emaiozu buelta bat zure munduari euskararekin 2020-21



ONDO iBiLi!

BEKA
matrikularen
arte %85a



ABIAPUNTUA

Zu zeu eta zure errealitate linguistikoa.

IBILBIDEAK

- Aurrez aurreko ikastaroak, hainbat iraupen eta intentsitatetakoak.
 - Maila guztiak.
 - Orduzabala.
 - Txandaka aritzeko aukera...
- On-line ikastaroak, autoikaskuntza...

Esperientzia orijinala bermatuta.



Bidaia
asegurua
barne

AGENTZIAK

Bidaia ezazu zuzenean herriko agentzia batekin, ziurtasun osoz.

Udaleko euskaltegia

- Helbidea: Bekokale bidea 1
- Telefonoa: 943 361 621
- e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.eus
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 23ra

Munnteri-AEK euskaltegia

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behea
- Telefonoa: 607 625 233
- e-maila: lasarte@aek.eus
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 25era

GELDIALDIAK

- Haurrekin hitz egitea...
- Gauza laburrak idaztea...
- Titulu bat eskuratzea: B1, B2, C1, C2
- Lagunekin, lankideekin, familiakoekin euskaraz aritzea...
- Euskarazko kultura, esperientziak, jarduerak hobeto ulertzea, parte hartzea, parte izatea...

HELMUGA

Zeuk aukeratzen duzuna.

ONDO iBiLi!

Abia zaitez amesten duzun txokorantz

BALDINTZAK

- Lasarte-Orian erroldatua egotea, ikastaroa hasi baino egun bat lehenagotik ikastaroa amaitu bitartean.
- 16 urte beteak izatea ikastaroa amaitzen den egunean.
- Ikastaro hauetakoren bat egina izatea:
 - 1- Euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa.
 - 2- Barnetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada.
 - 3- Udako ikastaroak (ikasturtean zehar aurreko ikastaro-mota horietako bat egin duten ikasleen kasuan bakarrik)
- Gutxienez % 85eko asistentzia eta gutxienerako aprobetxamendua gaititua.

Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo 15 egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.eus

Buruntzaldea eskualdeko euskaltegiak jo eta ke lanean aritu dira 2020-2021 ikasturteko eskaintza prestatzeko. COVID-19aren pandemiak erabat aldatu du zentro horien egunerokoa: aurrez aurre egiten ziren saioak eta tutoretzak, online; gelak egokitu beharra, osasun eta higiene neurriak... Beharrezko osasun-neurriak hartu eta eskaintza zabala prestatuta, euskaltegiak ikasleei erakutsi eta laguntzeko prest daude. Gainera, beste abantaila bat ere edukiko dute ikasleek: matrikulazioak bultzatzea da eskualdeko udalen helburua, eta, horretarako, diru laguntza sortak eskaintzen dituzte; bateragarriak izan daitezke HABE Helduen A l f a b e t a t z e eta Berreuskalduntzerako Erakundeak ematen dituenarekin. Hortaz, eskualdeko herritarrei ia doan eta zenbait kasutan doan atera dakieke ikastaroa. Euskaraz ikasiko dute, berme guztiekin.

Aurreko ikasturteetan euren buruei jarritako helburua lortu dute Buruntzaldeko Euskara Zerbitzuek: 1.000 ikasleen langa gainditzea. 2018-2019 kurtsoko datuen arabera, 1.043 pertsona aritu ziren euskara ikasten eskualdeko euskaltegiren batean. 2019-2020 ikasturteko matrikulazioen behin betiko kopuruak irail amaieran jakingo dituzte euskara zerbitzuek.

Zortzi euskaltegi daude guztira eskualdean. Bina Lasarte-Orian eta Hernanin, eta bana Urnietan, Hernanin, Andoainen eta Usurbilen.

Buruntzaldea osoko eskaintza aintzat hartuta, non aukeratua badago. Asteazken eguneguz gehienez, goizetik ilutzerako arteko ordutegietan, zortzi euskaltegi horietan ikasle bakoitzaren beharren arabera ikastaroen ematen dituzte. Hasteko, maila aldetik: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 egiteko aukera dago. Nork bere kabuz autoikaskuntzan ikasteko abagunea ere badu. Tutoretzak, programazio pertsonalizatuak eta mintza-saioak eskaintzen ditu ikastaro mota horrek.

Mintzalagun, Gurasolagun, Zilegi Eskola... Eskolez gain, beste alderdi praktikoagoa ere eskaintzen dute euskaltegiak, ikasitako guztia praktikan jartzeko eta mintzamina lantzeko. Beste ekintza osagarri batzuk ere eskaintzen dituzte euskaltegiak, hala nola, irteerak, txangoak...



2020-2021 ikasturtea prestatzen buru-belarri aritu dira eskualdeko euskaltegiak hilabeteotan. TXINTXARRI

Euskara ikasi, berme guztiekin

Buruntzaldeko udalek euskaltegietako matrikulak ordaintzeko diru laguntzak ematen dituzte, euskara ikastea bultzatzeko. Eskaintza zabala dago eskualdean: zortzi euskaltegi daude. Buru-belarri aritu dira lanean guztiak, eta ikasturte berriari ekiteko prest

Udalen laguntza

Buruntzaldeko udalek ematen dituzte diru laguntzak euskara ikasteagatik –eskuinaldeko taulan kontsulta daitezke–. Bakoitzak bere baldintza propioak ditu, baina badira ezaugarri komun batzuk. Esaterako, gutxienezko asistentzia bete behar da, eta errolatuta egon behar da herrian bertan. Langabetuei ere laguntza handiagoak ematen dizkiete; %100 kasu batzuetan, 500 eta 600 eurora arteko mugapean.

Horrez gain, HABE ere diru laguntzak ematen ditu. 2020. urtean, 3.150.000 eurokoak. Ondokoak dira baldintzak: batetik, 2019ko martxoaren 25etik 2020ko abuztuaren 31ra bitarteko epealdian euskaltegi edo euskararen zentro homologatu batean matrikulatuta egon izana; bestetik, 2019-2020 ikasturtean HABEren maila bat edo

baliokideren bat egiaztatzea. 2020ko irailaren 4tik urriaren 9ra eska ditzakete laguntza horiek.

Buru-belarri lanean

Eskualdeko euskaltegiak herritarrak animatzen dituzte 2020-2021 ikasturtean matrikulatzera. Hernaniko Udala Euskaltegiak egokitzapen lan handia egin du hilabete hauetan: presentzialak ziren saio guztiak online, eskola orduak eta ikasleen egoera errespetatuz; osasun eta higiene neurriak ikasgeletan ezarri; eta beste hainbat. "Eskertu nahi dugu

"IKASLEAK GUREKIN EUSKARA IKASTERA ANIMATZEN DITUGU, EZ DEZATELA BELDURRIK IZAN"

Hernaniko Udalak eman digun laguntza, oso ongi erantzun die gure eskaerei hilabeteotan", azpimarratu du Gurutze Salaberria zuzendariak. Pandemiaren egoera zeinahi dela ere, prest daude. Hiru aukera aurreikusi dituzte ikasturte berriko: presentzialak diren saio guztiak online; erdiak fisikoki eta erdiak Internet bidez; edo %100ean etxetik, telematikoki.

Lasarte-Oriako Muntteri-AEK euskaltegiako langileek ere lan ikaragarria egin dute COVID-19aren pandemiak eragindako ezohiko egoerara moldatu eta hastear den ikasturtea prestatzeko. "Ez dugu ezer gertatu ez balitz bezala jokatu, beharrezko neurri guztiak hartu baititugu; herritarrei esan nahi diegu animatzeko euskara ikastera eta ez izateko matrikulatzeko beldurrik".

Eskualdeko udalen diru laguntzak

Andoain

- **Baldintzak:** Andoainen errolatuta egotea. Gutxienezko asistentzia: %85.
- **Diru laguntza:** Matrikularen %85 guztiei; familia ugari edo errenta txikikoei, %100. Autoikaskuntza, %100; 664 eurora arteko muga.

Astigarraga

- **Baldintzak:** Astigarragan errolatuta egotea. Asistentzia minimoa: %85.
- **Diru laguntza:** Matrikularen %75 guztiei, 600 euroko mugarekin. Familia ugari edo, errenta txikikoei, eta abar: matrikularen %100.

Hernani

- **Baldintzak:** Hernanin errolatuta egotea. Gutxienezko asistentzia: %85.
- **Diru laguntza:** Matrikularen %70. Langabeei, %90; 500 euroko muga. Finantzazio aukera desberdinak.

Lasarte-Oria

- **Baldintzak:** Lasarte-Orian errolatuta egotea. Gutxienezko asistentzia: %85.
- **Diru laguntza:** Ohiko diru laguntza, matrikularen %85.

Urnietan

- **Baldintzak:** Urnietan errolatuta egotea. Asistentzia minimoa %80.
- **Diru laguntza:** Matrikularen %85, 600 eurora arteko mugarekin. Langabeei, matrikularen %100.

Usurbil

- **Baldintzak:** Usurbilen errolatuta egotea. Gutxienezko asistentzia: %80.
- **Diru laguntza:** Guztiei, matrikularen %100, 600 eurora arteko mugarekin.

Buruntzaldeko udalek %70 - %100 artean diruz laguntzen dute euskara ikastea!



Usurbil



Andoain



Lasarte-Oria



Urnieta



Hernani



Astigarraga



**Eus
ka
ra
ikasiz**

Erabiliz ikasi,
ikasiz erabili



buruntzaldea.eus

Jo gogoko duzun euskaltegira eta izena eman!

ANDOAIN

Andoaingo AEK
Plazaola, 2.
andoain@ae.k.eus
943 591 704

LASARTE-ORIA

Munteri AEK Euskaltegia
Geltoki kalea 17 Behea
607 62 52 33
lasarte@ae.k.eus

HERNANI

Hernaniko AEK
Larramendi 11
943 557 801 607592864
Zilegi eskola: 663043314
hernani@ae.k.eus

USURBIL

Etumeta AEK
Euskaltegia
Kale Nagusia 43, Behea
607 609 379
usurbil@ae.k.eus

ASTIGARRAGA

Astigarragako AEK
Kultur etxea. Nagusia 48.
607610687
astigarraga@ae.k.eus

**Lasarte-Oriako Udal
Euskaltegia**

Bekokale bidea, 1
(anbulatorioaren
gainean)
943 36 16 21
euskaltegia@lasarte-oria.eus

**Hernaniko Udal
Euskaltegia**

Karobieta 63
(anbulatorio zaharra)
euskaltegi@hernani.eus
943 331 896

URNIETA

Urnietako AEK
Errekalde kalea, 1
662 33 87 47
urnieta@ae.k.eus



Belartieta, eskuinetik hasita lehena, Ondarroako probako irudian. A. ARRIZABALAGA



Hibaika Susperregi eskifaia Antton Bilbao proban. HIBAIIKA

Belartieta, Kontxako banderaren lehian

Donostia Arraun Lagunak traineruak hirugarren postua lortu du sailkapen saioan. COVID-19a dela eta, estropada eremua eta Donostiako hainbat guneta itxita egongo dira. Zaletuei Gipuzkoako hiriburura ez hurbiltzeko gomendioa egin diete antolatzaileek

Txintxarri

Arraunaren zaletuak denboraldiko proba erreginaren zain daude. Irailaren 6an eta 13an Kontxako Banderaren jokatuko da Donostian. Aurten, ordea, etxetik gozatu beharko dute lehiaz.

Bien bitartean, aho bizzarra kentzeko, Donostiako traineruekin batera bi jardunaldi berezi horietan parte hartuko duten hamalau eskifaia erabakitzeko 36 ontzik sailkapen probak jokatu dituzte asteazken eta ostegunetan.

Donostiako portuan 40 traineru espero ziren arren, Deusto,

Arkote eta Larrun Kosta klubeko bi eskifaia, bai emakumezkoa, baita gizonezkoa ere, ezin izan ziren Donostiara bidaiatu euren taldean COVID-19ko kasuak izateagatik edo emaitzen zain egoteagatik.

Aiora Belartieta herritarra kide duen Donostia Arraun Lagunak trainerua ere lehiaketatik kanpo geratzear izan da. Abuztu amaieran bigarren positibo bat egon da taldean eta irailaren 1era arte itxialdian egon da taldea. Baina asteazkenean uretara atera, Kontxako badiaz kanpo zegoen

haizeari aurre egin eta ezbehar guztiak astindu zituzten iganderako sailkapena lortuta. Hirugarren izan ziren Orio eta Tolosaldearen atzetik.

Igandean, Donostia Arraun Lagunak lehen txandan lehiatuko da, Tolosaldea, San Juan Igartzeta eta Hondarribirekin batera. Talde guztien buruan bandera eskuratzea dagoen arren, Euskotren Ligan garaiezin izan zen Orio izango da bigarren txandan lehiatzen.

Gaizka Ormazabal herritarrak, berriz, atzo lehiatu zuen Hibaika Susperregirekin. Aldizkari

honetako edizioa itxi baino lehen ez dugu emaitzarik lortzerik izan.

Ikuslerik ez bertan

Kontxako Banderaren edizio hau berezia izango da, ikusleek ezin baitute estropada eremura gerturatu. Aurkezpenean antolatzaileek aurreratu bezala, COVID-19ak eragindako osasun egoeraren ondorioz, jenderik gabe eta segurtasun neurri handienekin egingo da.

Sailkapen jardunaldiak izan dira horren erakusle. Pasealeku Berria, Urgull mendia, Portuga eta Mari kalea itxita egon da baimenik ez zuten pertsonentzako eta Santa Klara Uharteko zerbitzua ere eten dute.

Horrez gain, ikusleek ezin izan dute Alderdi Eder eta udaletxetik hondartzara sartzeko lehen arrapalara bitartean dagoen baranda ondoan gelditu eta akreditatutako pertsonen sarbideak kontrolatzeko jarri diren azpiegituraren inguruak "gune dinamikotzat" hartu dira. Beraz, hauen inguruan jendea ezin da geldirik egon.

Itsasoa ere murrizketak ezarri dituzte bi jardunaldi nagusiei begira. Badiaren barruan ainguratze edo amarratzerik ez dutenei ez zaie sartzen utziko. Ontziek kanpoko balizetatik estropada jarraitu ahal izango dute baina azken txandaren ondoren ontziek ezingo dute traineruen jarraipen tradizionala egin.

Neurri horiek guztiak direla eta, antolatzaileek zaleei proba etxetik jarraitu dezaten eskatu diete, eta Donostiara ez gerturatzeko deia egin.

Ligak amaituta

Kontxako lehia alde batera utzita, Lasarte-Oriako arraunlarien bi eskifaiek denboraldia amaitu eta maila mantenduko dute.

Belartieta kide duen Donostia Arraun Lagunak taldeak COVID-19aren enbata jaso arren, Euskotren Ligako hirugarren postuan amaitu du.

Abuztuaren 15ean eta 16an jokatu zituzten azken jardunaldiak Zarautzen eta bertan eskuratutako puntuek jaitsiera jokatzeke postutik urrunditu eta hurrengo denboraldian maila gorenean jarraitzeko lasaitasuna eman zion Donostiako eskifaia.

KAE2 mailan, berriz, Hibaika Susperregik zortzigarren amaitu du denboraldia. Lehengo asteburuan, abuztuaren 29an eta 30ean, Castro Urdialesen, Kantabria eman zioten agurra aurtengo ligari.

Bi jardunaldietan bigarren txandan lehiatu zen Gaizka Ormazabal herritarra kide duen eskifaia. Larunbateko proban zazpigarren postuan amaitu zuen lehia Errenteriako taldeak; igandean, ordea, ezin izan zuen bere postua hobetu eta zortzigarren izan ziren.

Buruntzazpiko kideak, Errepideko Espainiako txapelketan lehian

Igandera arte, Carbayeda, Etxeberria eta Pozo Mallorcan izango dira Euskadiko selekzioarekin

Txintxarri

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kideek ez dute atsedetik izan abuztuaren. Lehiaketaz lehiaketa ibili dira eta hainbat lasterketetan lehen postuan sailkatu dira junior gazteak.

Haimar Etxeberria, esate baterako, abuztuaren 14an jokatu zen Euskadiko txapelketan podiumeko hirugarren mailan egon zen.

Ondorioz, Etxeberriak berak, Beñat Carbayeda eta Asier Pozo

txirrindulariek Euskadiko selekzioaren deia jaso dute eta gaurtik igandera bitartean, junior mailako Errepideko Espainiako txapelketan lehiatuko dira Buruntzazpi hiru kideak. Mallorcako, Balear Irlak, Lluçmajor herrian junior mailako txapelketaz gain, master mailako lehiaz gozatu ahaliko dute hiru gazteak.

Probak

Guztia ondo bidean, gaur, irailaren 4arekin, erlojupeko



Proba batean lehian. GIPUZKOAKO TX. FED.

probek emango diote hasiera asteburuari eta Buruntzazpi eskolak ordezkaria izango du, Carbayeda. Lluçmajor herrian hasi eta amaitzen den 21,6 kilometrotako ibilbidea egingo du herritarrak.

Igandean, berriz, lerroko proba izango da eta Buruntzazpi eskolako hiru kideak irteera puntuan izango dira haien onena emateko. 33 kilometro luzera eta perfil aldapatsua duen zirkuitu bati lau bira eman beharko diete gazteak.

Dominak Euskadiko atletismo txapelketan

Ostadar SKTko atletismo taldeko Naroa Furundarenak eta Maider Rekondok Euskadiko txapela eskuratu zuten luzera jauziko eta pisu-jaurtiketako lehiaketetan; Rekondok gainera zilarrezko domina eskuratu zuen disko-jaurtiketa proban

Txintxarri

Ostadar SKTko atletek aire zabaleko txapelketen denboraldiari hasiera eman zioten abuztuaren 29an Euskadiko Txapelketan. Emaitza onak lortu zituzten, bi urrezko domina eta zilarrezko bat.

Naroa Furundarena, Maider Rekondo eta Ohiana Igarritz izan ziren Ostadar SKTko ordezkariak Erkidegoko txapelketan eta Furundarena eta Rekondoren artean banatu zituzten Euskadiko txapeldun titulu eta garaikurrak.

Furundarena izan zen lehena parte hartzen eta baleko bi jauzi bakarrik egin zituen herritarrak urrezko domina janzteko. Lehenean 5,35 metroetara iritsi zen; bigarrenean, berriz, 5,56 metroetara egin zuen hegan Euskadiko txapela eskuratuzko.

Bien bitartean, Rekondok eta Igarritzek pisu-jaurtiketako probari aurre egin zioten.

Hasierako jaurtiketatik nagusi izan zen Rekondo herritarra proban eta finaleko bosgarren jaurtiketari esker, 12,07 metro, lortu zuen urrezko domina.

Igarritzek, berriz, laugarren postuan amaitu zuen lehia. Bederatzi metroak igaro zituen lehen bi jaurtiketetan eta hirugarrenean, 10,09 metroetara bidali zuen 4 kiloko bola.

Arratsaldeko saioa disko-jaurtiketako probarekin hasi zuten Rekondo eta Igarritzek.

Rekondoren lehen jaurtiketa ona ez izan arren, 29,88 metro, bigarrenean 30 metroko langa ederki gainditu zuen herritarrak. Diskoa 36,68 metroetara bidali eta probako lehen postuan jarri zen.

Atletico San Sebastian taldeko Andrea Martinezek, ordea, ez zuen amore eman eta urrezko domina emango zion 37,53 metroko marka egin zuen hirugarren saiakeran. Rekondok urrezko domina eskuratzeko ahaleginak egin zituen geratzen



Rekondo, Furundarena eta Igarritz, Euskadiko txapelketan. OSTADAR ATLETISMOA

EZ DAKITE ESPAINIAKO TXAPELKETAN PARTE HARTZERIK IZANGO DUTEN

zitzaizkion jaurtiketetan. Nahiz eta diskoa 30 metrotik gora bidali, ezin izan zuen arerioaren marka hobetu.

Igarritzek ere bigarren jaurtiketan lortu zuen txapelketako bere markarik onena, 30,91 m. eta sailkapeneko bosgarren izan zen.

Jauzi hirukoitzeko proba izan zen Naroa Furundarenak egin zuen azkena eta laugarren postuan amaitu zuen lehia. Jauzi hirukoitzaren antzera, baleko bi saiaketa bakarrik egin zituen gazteak, 11,96 m. eta 11,88 m. eta ezin izan zuen dominen atea ireki ahalko zizkion 12 metroko langa igaro.

Eguraldiaren eragina

Ostadar SKTko atletak larrialdiko egoerako lehen fasean hasi ziren lanean eta txapelketa honen aurretik, ez dute jarduteko

aukera askorik izan. Markak hobetzeko bi proba izan dituzte, bata uztailearen 30ean eta bestea abuztuaren 6an.

Hilabete hauetan atletek izandako garapena ikusirik, marka hobeak egitea espero zituzten arren, saileko arduradunak pozarren daude atletek lortutako emaitzekin. Oscar Goikoetxea entrenatzaileak azpimarratu moduan, eguraldiak eragin handia izan du lehiaketan. "Eguraldi txarrak atleten jardunean eragin du eta ezin izan dituzte markak hobetu".

Irailaren 12an eta 13an jokatu den Espainiako txapelketa helburu dute Ostadarreko arduradunek, baina Espainiako federazioak gutxienezko markak zorrotzitu ditu eta ez dakite parte hartzerik izango duten.

"Naroa Furundarenak eta Maider Rekondok dute aukera Espainiako txapelketan parte hartzeko, baina estatuko hamabi hoberenak bakarrik egongo dira lehiaketan. Marka berrieekin, Naroa Furundarenak ez du jauzi hirukoitzeko proban lehiatzeko markarik. Zain egon beharko gara", jakinarazi du Ostadar SKTko prestatzaileak.

Arteaga II eta Zabalak partida gogorrari ezin zukurik atera

Lasarte-Oriako pilotariak kontratua berritu du Baiko Pilota enpresarekin, 2022. urtera arte

Txintxarri

Bilboko Bizkaian pilotalekuan abuztuaren 28an bildu ziren pilotazaleek jaialdi ederra ikusteko aukera izan zuten. Masters Caixabank lehiaketako partida nagusian, Olaizola II.ak eta Zabaletak Altuna II.a eta Imaz garaitu zituzten, 18-21 galtzen egon ostean.

Aurretik ere lehia gogorraz gozatu zuten. Arteaga II.a herritarrak eta Ibai Zabalak Egiguren V.a eta Erostarbe izan zituzten aurrez aurre.

Lasarte-Oriako aurrelariak ederki hasi zuen partida lehen tantoa eginez. Egiguren eta Erostarberen erasoari aurre egin behar izan zion ostean bikote gorriak eta ederki erantzun zuen.

Bikoteek markagailuan aurre hartzeko ahaleginak egin zituzten eta tantoak banatzen joan ziren.

Partida gorri izango zela zirudien hamahiruna berdindu zuten arte. Orduan bikote urdinak hiru tanto jarraian egin zituen. Arteaga II.a eta Zabalak tartea murrizten saiatu zirenen eta 14-16koa lortu zuten.

Hala ere, Egiguren eta Erostarbe bikoteak bere abantaila mantentzen jakin zuen eta



Arteaga, kontratua sinatzen. BAIKO PILOTA

Arteaga II.aren akats batek eman zion garaipena bikote urdinari, 19-22.

Kontratu berritzea

COVID-19ak eraginda Baiko Pilota enpresak pilotari taldea murrizten ari da. Taldearen moldaketa honek, ordea, ez dio Axier Arteaga herritarrari eragin. Enpresak pilotari lasarte-oriatarren aldeko apustua berretsi eta abuztuaren erdialdean, Axier Arteagak kontratua berritu du.

Arteaga II.ak 2016 urtean egin zuen debuta Tolosako Beotibar pilotalekuan eta kontratu berri honi esker, 2022 urtera arte egongo da Baiko Pilotan.



ISAAC FARRÉ RICO

Behobia-Donostiarik ez

Lasterketa garaia hastear dagoenean, Fortuna KEK Behobia-Donostia bertan behera uzten duela jakitera eman du. Hilabeteetako azterketa eta lanaren ostean, lasterketa osatzen dute pertsona guztien segurtasuna bermatze aldera hartu du erabakia kirol elkarteak. "Uneotan pertsona horiek guztientzat inguru erabat segurua bermatzea gure ahalmenetik kanpo dago". Izena emana zuten korrikalarietako mezu elektronikoko bat helarazi die antolakuntzak dauzkaten aukerak jakiteko: 2021. urterako edo 2022. urterako izena ematea mantendu, kopuru osoa itzuli edo zenbateko osoa edo zati bat Fortuna KEri dohaintza moduan ematea.



Neguko ordutegian lanean ari dira udalaren kirol instalazioetako langileak irail hasieratik. TXINTXARRI

Aldaketak Udal Kirol Zerbitzuaren jardunean

Herritarrek presentzialki ere erreserba ditzakete orain kiroldegiko zein kirol-guneko instalazioak. Pandemiagatik etendako ikastaro eta abonuen zati proportzionalak itzultzen hasi da Udal Kirol Zerbitzua, baina 600 pertsona baino gehiagoren banku-datuak falta zaizkie

Txintxarri

Aldaketa batzuen berri eman du Udal Kirol Zerbitzuak ohar bidez. Esate baterako, herritarrek aukera dute erabili daitezkeen gunek presentzialki ere erreserbatzeko, Maialen Chourraut kiroldegian zein Michelin kirol-gunean. Bertara joaterakoan segurtasun eta osasun neurriak errespetatu beharko dituzte, eta, pertsona ugari egonez gero, kirol saioa egitera doazen erabiltzaileei lehentasuna eman. 943 37 61 82 telefono zenbakira deituta ere egin dezakete tramitea, instalazioak ekain hasieran berriki zizutenekin egin behar izan duten bezala.

Lasarte-oriatarrek erabil ditzaketen gunek hauek dira: igerilekua, gimnasioa eta padel zein squash pistak kiroldegian; eta frontoia, tenis pistak eta rokodromoa kirol gunean.

Irailaren lehen aldatu egin zituen instalazioen orduak Udal Kirol Zerbitzuak. Maialen Chourraut kiroldegiko instalazio gehienak

07:00etatik 22:30era irekiko dituzte astegunetan. Igerilekua, berriz, 07:00etatik 12:30era eta 14:00etatik 21:30era. Sauna ere erabili ahalko dute bazkideek, 09:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 21:00etara, aurrez eskatuta –erabili baino ordu bate lehenago, gutxienez–.

Asteburu eta ordutegiak ez dira berdinak izango. Larunbatetan, kiroldegiko instalazio gehienak 09:00etatik 20:00etara egongo dira zabalik; igerilekua, berriz, 09:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 20:00etara. Igandeetan, 09:00etatik 13:00era biak. Sauna ez dute irekiko ez larunbatean ez igandean.

Michelingo kirol-gunea 15:30etik 22:30era irekiko dute astegunetan. Larunbatetan, 09:00etatik

**NEGUKO ORDUTEGIAN
LANEAN ARI DIRA
INSTALAZIOETAKO
LANGILEAK IRAIL
HASIERATIK**

20:00etara eta goizez igandeetan, 09:00etatik 13:00era.

Abonamenduen itzulketa

Pandemiagatik etenda geratu ziren ikastaroen eta abonuen kuota proportzionalak itzultzen hasi da Udal Kirol Zerbitzua. Banku-transferentzia bidez ari direnez, onuradunen datuak behar dituzte. Azaldu dutenez, ez daukate guztienak eskura. "600 pertsona baino gehiagorenak falta zaizkigu". Zerbitzuko langileek eskatu diete "lehenbailehen" bidaltzea datu horiek, e-mail bidez ahal bada, kirolak@lasarte-oria.eus helbidera. Tramite hori telematikoki egin ezin dutenek 943 37 61 82 telefonora deitu beharko dute, zerbitzuarekin adosteko datu horiek nola eman.

Kiroldegiko bulegoa ere irekita dago. Jendaurreko ordutegia 09:00etatik 13:00era artekoa da. Asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara artekoa ere bai. 2020-2021 ikasturteko ikastaroetarako izena han eman behar da.

Igandean bukatuko da zaldi lasterketen udako denboraldia

Carrus Saria izan da azken-aurreko jardunaldiko proba nagusia: 'Virrey' zaldia izan da guztietan azkarrena

Txintxarri

Amaitzear da zaldi lasterketa denboraldirik ezohikoenetako bat, ezohikoena izan ez bada. Igande honetan, irailak 6, Donostia Saria jokatu da Hipodromoan, beste lau probarekin batera. Turf zaleek aukera izango dute harmailetara joan eta jardunaldiaz gozatzeko, eskuragarri dauden 1.000 eserlekuak bete arte. 17:30ean hasiko da aurreko lasterketa, eta ia bi ordu eta erdi beranduago jokatu da azkena.

Iragan asteazkenean motorrak berotu zituzten. Carrus Saria izan zen azken-aurreko jardunaldiko proba nagusia, eta Virrey zaldia izan zen denetan bizkorrena. Vaclav Janacek jockeyak gidatu zuen animalia, eta Guillermo Arizkorretak prestatzen du lasterketarako. Presidency eta Billicock Hill helmugaratu ziren ondoren, irabazlea iritsi eta berehala. Oso lehiatua izan zen Carrus Saria.

Asteazkeneko aurreko proba Sheik Zayed Al Nahyan Cup izenokoa izan zen, 1.600 metrokoa. Shadad zaldia irabazi zuen, eta Zalej Al Charm eta Natalma Al



Carrus Saria, lehiatua. ISAAC FARRE RICO

Maury izenekoak izan ziren bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren. Sheika Fatima Bint Mubarak proba hasi zen gero, eta hauek izan ziren aurreko hiru sailkatuak: Guinness d'Violettes, Hazzam eta Halisco. Jardunaldiko hirugarren proban, Balada sarian, Brey de Valiente nagusitu zen, eta Muguejetarra eta Just One Look helmugaratu ziren ondoren. Asteazken goizeko proba luzeena laugarrena izan zen, Galarreta Jai Alai Saria, 2.000 metrokoa. Rappeur zaldia irabazi zuen.



TXEMA VALLES


Txus Duarte taldea sortu dute

Txus Duarte lasarte-oriatarrek futbol ibilbide oparoa izan zuen. Besteak beste, Cadiz taldean jokatu zuen, eta 2.B mailatik Bigarren Mailara igo. Andaluziako talde horrek Espainiako maila gorenean jokatu du 2020-2021 denboraldian, eta hori tarteko, Txus Duarte taldea sortu du Ivan Garcia Caballero herritarrek. Doakoa da partaide izatea: Zubieta tabernara joan eta kamiseta hori bat eskuratuko dute interesa dutenek.


KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Ibai eta Araia
Zorionak Ibai eta Araia!! Muxu asko zuei familiaren partetik. Oso ondo pasa. Asko maite zaituztegu!



Araia
Zorionak Araia!! Muxu asko zure gurasoen eta familiaren partetik. Gozatu zure egunaz. Asko maite zaitugu!!



Ramon
Zorionak attona! Asko maite zaitugu eta 90 muxu potolo denon partetik.



Ramon eta Mari Karmen
Zorionak Ramon eta Mari Karmen! Ederki ospatu genituen zuen urrezko ezteiak! Orain arte bezain ondo jarrai dezazuela beste hainbeste urtez ere! Muxu haundi bana, familiaren partez!

JAIOTAKOAK


Ane Michelena Vicente. Abuztuaren 28an.
Izan Marin Ortiz. Abuztuaren 25ean.
Unax Fernandino Otegi. Abuztuaren 21ean.
Aiene Izaguirre Usandizaga. Abuztuaren 20an.
Aria Cantera Andres. Abuztuaren 19an.
Sofia Campo Marina. Abuztuaren 17an.
Intza Telleria Amonarritz. Abuztuaren 3an.
Zuhaitz San Emeterio Tercero. Abuztuaren 1ean.
Mara Vicente Blanco. Uztailaren 31n.
Iker Diaz Garcia. Uztailaren 28an.
Gabriel Goh Felipe. Uztailaren 15ean.

HILDAKOAK


Marisa Zubiri Bustillo. Irailaren 1ean.
Alejandro Galdeano Zubeldia. Abuztuaren 26an.
Pilar Cordero Llanos. Abuztuaren 25ean.
Isabel Usabiaga Olarra. Abuztuaren 25ean.
Fernando Corrionero Blázquez. Abuztuaren 21ean.
Raul Tecedor Martinez. Abuztuaren 19an.
Eleuterio Benito Rodriguez. Abuztuaren 17an.
Benedicta Granado Diaz. Abuztuaren 16an.
Carmen Velasco Gonzalez. Abuztuaren 15ean.
Gabriel Gonzalez Jimenez. Abuztuaren 14an.
Joxe Garmendia Zuriarrain. Abuztuaren 13an.
Damiana Lopez Mateos. Abuztuaren 12an.
Fernando Cruz Serrano. Abuztuaren 11n.
Melchor Muñoz Pizarro. Abuztuaren 4an.
Maria Josefa Salgueira Alves. Abuztuaren 4an.
Marivi Diaz Santamaria. Abuztuaren 1ean.
Jesus Maria Maté Tobar. Uztailaren 31n.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 4




Larunbata, 5




Igandea, 6




Astelehena, 7




Asteartea, 8



Asteazkena, 9



Osteguna, 10



GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 4	LASA	EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
LARUNBATA, 5	GIL	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
IGANDEA, 6	GIL	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
ASTELEHENA, 7	DE MIGUEL	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
ASTEARTEA, 8	ACHA-ORBEA	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
AZTEAZKENA, 9	URBISTONDO	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
OSTEGUNA, 10	GANDARIAS-URIBE	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINAZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Biyak Bat egoitzako taberna itxita

Biyak Bat zahar egoitzak ohar bidez jakinarazi du, pandemia dela-eta, egoitzako taberna itxi egin dutela, eta abisu berririk eman arte ezingo dutela zerbitzu horren erabilerarik egin.

Horrez gain, gogorarazi nahi dute egoitzako emakumeen ilepaindegi eta kiromasaje zerbitzuak martxan jarraitzen dutela, baina horietara joan ahal izateko, aurretiatzko hitzordua hartzea beharrezkoa da.

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKARIA
Lan bila ari naiz Lan bila nabil geriatría arloan, dokumentazio guztia eguneratuta daukat eta 15 urteko esperientzia. 690 146 067

Lan bila asteburuatarako Lan bila ari naiz, asteburuetan jarduteko, orduka. 639 740 900.

Haurrak zainduko nituzke, ikastolara sartu bitartean. 630 682 716.

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN
Etxea partekatzeke neska baten bila gabiltza. Interesatuak jarri nirekin harremanetan, 666 320 520. (Nekane).

Etxea behar da lasarten bizi dan familia batentzat. 5 lagun dira senar emazte eta 3 seme alaba. Harremanetarako zenbakia, 661 39 62 99.

SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu +

paseo aulkia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 824 466.



NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

LEHIAKETA

BUDDY

Ekaina eskulanetan amaitu zuten Lasarte-Oriako txikiek. Ttakun Kultur Elkarteak II. Haurren Eguna antolatu zuen, eta, bertan, Txorimalo lehiaketan parte hartzeko aukera izan zuten etxeko txikienek.

Guztira bost txorimalo dotorebidali zituzten herriarrek txintxarri.eus web orrialdera, eta, irabazlea aukeratzea lan zaila izan bazen ere, horien artean Unax Gomez de Sosarena izan da garailea. Bozka gehien bildu zituen




txorimaloaren egileak 50 euroko bonu bat eskuratu du Maite liburu-dendan erabiltzeko. Eta hala egin dute asteon.

Zorionak Unax Txorimalo lehiaketa irabaztegitik eta mila esker gainerako lau parte hartzaileei ere lehiaketan parte hartzeagatik!

SUDOKUA

		9				6		8
6			9	4	5		3	
		1		7		5		
8	7		4				2	
	3		1	2				5
	1			8	9			
				6	2	4		
	8	3						6
5			3				9	

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administratzailea

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iraiti Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzaileak

Julene Iraola eta Uxue Odriozola,
Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Jose
Lanchas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.350 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Stock Azoka

Aterpea Merkatarien Elkarteak urteroko Stock Azoka antolatu du aurten ere, baina, aurtengoa, egoera berezira moldatuta. Hamahiru establezimenduk parte hartuko dute, eta biltegiko produktuak salgai jarriko dituzte. COVID-19a tarteko, denda kanpoaldeetan ez dute gune berezirik jarriko.

Ostirala eta larunbata, Lasarte-Orian.

OSTIRALA 4

ANDOAIN Musika

Maria Berasarte abeslariak *Lurra eta bidea* proiektua aurkeztuko du. Bere proiekturik pertsonalena eta originalena da. Bertan, bere euskal sustraia erakutsiko ditu, beste musika estilo batzuetan zehar egindako bidaia, lehen aldiz musikara eta poetikara itzultzea nabarmenduz. Emanaldia doakoa den arren, ezinbesteko izango da gonbidapenak jasotzea. Horretarako, Bastero Kulturguneko leihatilara joan

behar da emanaldia hasi baino bi ordu lehenago.

Bastero Kulturgunea, 22:00etan.

DONOSTIA Dantza

LABO GO programaren 26. edizioaren barruan, Laila Tafur konpainiak *Monstruo* ikuskizuna eskainiko du. Emanaldia amaitu ostean, hizketaldia ere izango da. Sarrerak 3 euroren truke.

Tabakalera, 20:30ean.

DONOSTIA Musika

Integral de sonatas para piano de Beethoven programaren barruan,

piano emanaldia eskainiko du Judith Jauregi piano jotzaileak. Sarrerak salgai 15 eurotan.

Victoria Eugenia Antzokia, 20:00etan.

LARUNBATA 5

LASARTE-ORIA Stock Azoka

Aterpea Merkatarien Elkarteak, urteroko Stock Azoka antolatu du aurten ere, baina, aurtengoa, egoera berezira moldatuta. Hamahiru establezimenduk parte hartuko dute aurtengo edizioan, eta biltegiko produktuak salgai jarriko dituzte. COVID-19a tarteko, aldaketak egin dituzte aurtengo azokan: denda kanpoaldeetan ez dute gune berezirik jarriko.

Lasarte-Oria.

GOIZUETA Musika

Puro Relajo musika taldeak, kontzertua eskainiko du Goizuetako frontoian. Emanaldirako sarrera ordu erdi lehenago irekiko dute, eta sarrera modu mailakatu egingo dutela iragarri dute. Emanaldiak iraun bitartean nahitaezkoa izango da maskara jantzia edukitzea.

Frontoia, 19:00etan.

DONOSTIA Antzerkia

Trapu Zaharra antzerki konpainiak *Turistreatzen* obra aurkeztuko du

jendaurrean. Euskaraz izango da ikuskizuna, eta sarrera doakoa izango da. San Fernando bidaia agentziak, abiatu berri duen kanpaina aitzindari batekin gozatuko dute ikusleek.

Igeldo, 13:00etan.

DONOSTIA Lehiaketa

Donostia Kulturak eta Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarrak dantza lehiaketa antolatu dute. Sarrera doakoa izango da.

Trinitate plaza.

DONOSTIA Musika

Natalia Lacunza abeslariak emanaldia eskainiko du, Tiny Tour giraren barruan. Sarrera erostea ezinbestekoa izango da, 28 euroren truke.

Kursaal, 20:00etan.

DONOSTIA Musika

Integral de sonatas para piano de Beethoven programaren barruan, piano emanaldia eskainiko du Josu Okiñ ena piano jotzaileak. Sarrerak erostea ezinbestekoa izango da, 15 euroren truke.

Victoria Eugenia Antzokia, 20:00etan.

IGANDEA 6

ZIZURKIL Musika

Zizurkilgo Iraila Kulturaren baitan, Olatz Salvador musikari donostiarrak

emanaldia eskainiko du. Sarrera doakoa izango den arren, gonbidapenak eskuratzea ezinbestekoa dela jakinarazi dute antolatzaileek. Hortaz, kontzertua ikustera animatzen direnek udal bulegoetan jaso beharko dituzte gonbidapenak, ekitaldia hasi baino hamabost minutu lehenago. Jakinarazi dutenez, pertsona bakoitzak gehienez ere lau gonbidapen jaso ahal izango ditu.

Joxe Arregi plaza, 19:30ean.

ASTELEHENA 7

LASARTE-ORIA Udazkeneko Festa

Kanpaina berezia martxan jarriko dute Aterpeak eta udalak. Udazkeneko Festan parte hartzen duten dendetan irailaren 7tik 19ra arte erostekak egiten dituzten herritarrak irailaren 23ko zozketan sartuko dira. 500 euroko bi eta 250eko hamar irabazi ditzakete.

Lasarte-Oria.

ASTEAZKENA 9

HERNANI Solasaldia


Elena Poniatowskaren *Leonora* eta Thomas Mannen *Muerte en Venecia* lanen solasteko aukera izango da. Amaia Garcaren gidatuko du saioa eta erdaraz izango da.

Biteri kultur etxea, 19:30ean.

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz

jarraitu herriko albisteak sarean



www.txintxarri.eus



2020-2021 ikasturtea UDAL EUSKALTEGIAN



**DIRU-LAGUNTZAK BADAUDE.
GALDETU BALDINTZAK**

**A1 eta A2 tituluak euskaltegia bertan lortzen dira.
B1 (1HE), B2 (2HE) eta C1 (3HE-EGA)eko azterketak egiteko prestatu.**

IKASTAROAREN IRAUPENA: IRAILAREN 24TIK EKAINAREN 17RA

- Astelehenetik ostegunera. Astean 10 ordu. Txandaka ibiltzeko aukera maila guztietan
- Hiru ordutegi aukeran: 9:00-11:30 | 15:00-17:30 | 18:30-21:00.
- On-line (BOGA).
- 16 urtetik gorakoentzat.

**MATRIKULA ZABALIK
IRAILAREN 23RA ARTE**



Lasarte-Oriako UDAL EUSKALTEGIA (Bekokale bidea, 1) Tel: 943 36 16 21 - euskaltegia@lasarte-oria.eus BULEGO ORDUTEGIA: 08:30-19:00



Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteko bazkideen artean!

Haurrekin **ESKULANAK** egiteko gida + 3 CD
(The Uski's + Labrit + Oinkari Dantza Taldea)

Parte hartu nahi baduzu, eman izena IRAILAREN 27a baino
lehen: harpidetza@ttakun.eus helbidean 943 37 14 48 zenbakira deituta eta
646. 82 44 66 (whatsapp)



@TtakunKE f Bzkidetzeta informazioa

EPA LASARTE HHI

2020-2021 ikasturtea

aurretiko
hitzordua
eskatzeko,
deitu

MATRIKULA ZABALIK IRAILAREN 11RA ARTE

- **Lehen Hezkuntza** (Kultura orokorra. Ingelera, Gaztelania, Idazmena eta Irakurmena. Oinarriko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...).
- **Bigarren Hezkuntza (DBHko tituluak lortzeko moduluak).**
- **Gaztelania atzeritarrentzat.**
- **EUSKARA (0-1-2 mailak).**



Tel. 943 37 64 43 / 943 36 66 08 • Beko kalea bidea 1, 3 • Lasarte-Oria • www.epalasarate.eus

Oporretako

ARGAZKI LEHIAKETA

ALDIKA produktu sorta eskura dezakezu **saria!**

Argazki politak atera dituzu oporretan? Igo itzazu

TXINTXARRI.eus-era

Irailaren 13ra arte parte har dezakezue! Oinarriak: www.txintxarri.eus/lehiaketa

aldika
PRODUCTOS SELECTOS

